

AuzoEkin.

5. eremuko tailer irekia.

San Esteban.

Tolosako Udala.

1.

Laburrean

1. Oinarrizko informazioa.

Data: irailak 2.

Ordutegia: 18:00etatik 20:00etara.

Tokia: San Esteban auzo elkarte.

Parte-hartzaileak:

- Tolosako Udala:

- o Garikoitz Lekuona, Komunitatea eta Gobernantzako arduradun teknikoa.
- o Lide Olalde, Komunitatetea eta Gobernantzako dinamizatzailea.
- o Osoigoko enpresako ordezkariak, Xabi eta Hegoa.

- Inguruko auzoetako bizilagunak:

- 10 bizilagun, 6 emakume eta 4 gizon.

2.

Aurkezpenaren gakoak

Ongietorria eta saioaren kokapena

Garikoitz Lekuona Izetak (Komunitatea eta Gobernantzako zerbitzuburuak) ongietorria egin die bertaratutakoei, eta laburki azaldu du AuzoEkin prozesuaren barruan gaurko bilera non kokatzen den. Horrez gain, tailerraren helburu orokorrak aurkeztu ditu:

- Orain arte jasotako datuen eta informazioaren interpretatzea.
- Hausnartzea, sailkatu eta indargune eta ahulguneak definitzea.
- Erronken lehenespena egin eta ondorioak ateratzea.

3.

Saioaren azalpena

1. DIAGNOSTIKOAREN AURKEZPENA

Egoera eta beharrak aztertu dira eremuz eremu, modu integralean: ingurumena eta paisaia, historia eta kultura, mugikortasuna, espazio publikoa, etxebizitza, biztanleria eta bizikidetzak, ekipamendu eta zerbitzuak, ekonomia eta kontsumoa...

Saio honetan daturik adierazgarrienak azaldu eta horien inguruan hausnartu dugu.

Elkarbizitzaren atala izan da gairik aipatuena. Espazioak partekatzearen eta elkarren arteko harremanen inguruan piztu da eztabaida.

Teknikariak aipatu du San Esteban dela elkarbizitzaren inguruan gehien hitz egiten den eremua. Horri lotuta, Osoigoko kideak ere aipatu du nabaria dela auzokideek badutela borondatea auzokideen arteko dinamikei heltzeko.

2. DINAMIKA

Saioaren zati honetan erronken inguruko dinamika bat egin dugu: erronkei buruz hausnartu, eta indarguneak zein ahulguneak definitu ditugu.

Diagnostikotik ateratako erronkak 6 bloketan banatu ditugu eta horien inguruan eztabaidatu. Hauek dira sei blokeak:

1. Ingurumena, paisaia, historia eta kultura
2. Mugikortasuna, azpiegiturak eta energia
3. Hirigintza eta etxebizitza
4. Biztanleria, partaidetza eta bizikidetzak
5. Ekipamenduak eta zerbitzuak
6. Ekonomia eta kontsumoa

3. ERRONKEN LEHENESPENA

Behin erronkak sei bloketan banatuta, eta taldean eztabaidatu ondoren, erronka horiek lehenespenerako ariketa egin dute bakarka. Auzotar bakoitzari 6 gomets eman zaizkio, 4 berde eta 2 gorri. Gomets berdeak garrantzizko erronketan itsatsi, eta gorriak garrantzirik gabekoetan itsasi behar izan dituzte.

Kasu honeta, arrantzirik handiena ekipamendu eta zerbitzuei eman zaie. Zehazki, komun publikoen eta iturriak egokitzearen beharrak azpimarratu dira.

Bestalde, erakundeekin dagoen harremanari ere garrantzi handia eman diote, eta utzikeria sententzia eta horrek sortzen dien desmotibazioa aipatu dituzte.

Azkenik, auzoan argitasunarekin dagoen arazoa nabarmendu dute.

Itxiera

Eskerrak eman, eta azken erronda bat egin da. Hurrengo hitzordua gogorarazi da: **deriba, auzoan zehar paseo bat eman eta orain arte aipatutako erronka guztiak geolokalizatu. Irailak 3, 18:00-20:00.**